

EUSKALTZAINDIARI.

Guk, euskaltzaiñok, bi zeregin jakin-jakiñak dítugu:
Leibizi. Euskera landu, al-bestean garbitu ta txukundu, alegia erdereetikoa zer kaltegarriak baztertuaz' jatortu, beretiartu; au' batez ere, gramatikari dagozkion gauzatan.

Eraberean, Euskera, gaurko mundua eskatzen dituan jakintza guztietarako baliozko, gauzadandu.

Zer guzi oik egiten? mihim ekin dícte ta ekiten, euskaltzain edo ta euskaltzale askok, baita kanpoko izkuntzalari ospetsu ta izen aundikoek ere. Beraz, ortan, baliozko aurrerapide askotxo dítugu egüñak.

Bigarren zeregiña, euskeraren bizitza zaindu, indartu eta edatzea degu. Obligaziorik aundieneko degun zeregin ontan ere' ekin dio Euskaltzaindiak, ortarako aukeratzen zaizkion aritz-e-bideetan. Baiña bide oik, zoritzkerrez' estuak dítugu, edaera ta mardera txikikoak. Eta egi-egitan: zabala gotzterik espaldin badukegu' euskeraren bizia, gerroago ta makalagotzen dijorkegu, eta gero' izkunta illen illunpetarako bidean. Ez ditzagun begiak itxi; au, mortu-saiek egin oi dute, arriskuren bat urreratzen zaienean; euskaltzaiñok ez geniegikete, zerran-eta ori, euskeraren ordez euskeraren eriotza-zain izatea genuke.

--Bei-bai, esango didezute euskaltzainkide maiteok, baiña zaintzen ori, nola egin? gortareko eskubidea eta ekin-bideak, nun aurki ditzakegu?

Arazo gaitza, egiaz, baiña berorretxegatik, euskaltzaiñok, gogorik aundienez ixtadiatu bearrekos.

I. EUSKERAREN MAKALTZALLEAK.

Euskeraren osasuna zerik makaltzen duan begiratzea' ori dégula, dirudi, asteko lana. Makaltzalle guzi-guziak ikertza? Ez-ez: ori sekula ez bukatzeko lana baikenuke. Begira ditzagun, bakarrik, gaur agiri-agirian ditugun kaltezaileetikat batzuk.

Erbestetik eltzten zaizkigun erdaldunak dítugula kaltegarrien uste duten askok.

Kaltegarri bai, baiña kaltegarrien ez. Erbestetikako geienok, eztutte euskeraren kalteko zerik; kontrara, oiek pozik ikusi oi dituzte beuren surrak euskera ikasten.

Ez ez: erbestetikako erdaldunak eztitugu, geienetan, euskera iltzaille. Nortzuk beraz? Betzuk beintzat gutxien gutxien izan bear luketenak, alegia, euskera gauzariak baliozkoentzat iñuki' eta euskera orren bizi-tza zaintzen eta indartzen geien saiatu bear luketenak, ots, Kristau katolikoak eta batez-ers, erlijio orren irakasle eta zaintzaileak. Aztertu dézagun auxe astiro, zerran-eta nere itzaldi onen mami-wamí degun autua baita.

II. EUSKOTARREN BIRTUTEAK. ONEN EUSKE' EUSKERA.

Uri aundiokoetan euskera atzeraka dijoalarik' anglo guraso jator eta buru-argi askok, esan oi dituzte onako ditz seminak: "Guk, zazpi-alegialak egiten dítugu, geure aurra, euskera ikasi eta euskaldun iraun dezaten, ikusten baitugu, atsekabez, oraingo gaziak, euskera galtzeaz' zenbat gauza on eta eder galdu, ta zantar eta hiztegi-txarreko ikasten dituzten."

Eta, gertzuk dira galtzeko arriskuan: ditugun "gauza on eta ederrok?" Duditzeke, onako oik: Gure gurasoak Euskalerrian eta edonun agertu dituzten eta mundu guziak autortzen ta txailotzen ditzaguten birtuteak. Autortzea au egiztatzeko eta agiriagotzea' sipatu genitzake, ezagun ditugun gertakom askoren artean oraintsu jakin ditugun iru geuzok.

1º. Anai-arteko azken-gudate ostean, Euskalerriko eta beste toki askotako jendetzak, Ameriketan iges egain zutelarik' anglo Erriek, euskotarrak begiremen bereiziz e-rezibitua zituzten. Arjentinako Gobernuak

batez-ere(Ortiz jauna Buru) lege bereizi bat eman zuan, auxe: Euskalerriko jendea, gelagoko gabe errezipituko zutela, alegia, beste erriletakosai eksij-tzen zieten paper eta abar gabe.

Ori' esan degunez Arjentina-a geritatu zan, lege ohoragarri orrek' euskal-jende eskolatua lagindu zien geienez, oitarikoek baltziren era Joan bearria izan zuter geienak.

2n. Orgin, nekazarin ditzugu deituak, eta Amerika-alde orren bestea puntatik, alegia, Ipar-ameriketako. Emen ere, euskal-mutilak aukeratzen ditzute artzaintza aundietareko, gure mutil azkar eta zintzook bañio oberik' ihun ezpaitituzte eurkitzen.

Sn. Ortega y Gasset, filosofo ospetsuak, esanak ditu, onako itzgoragarrick:

"España guzian eztá Euskalerrrian bañio ardura eundiagoz landuta lurrik, ezta obeki antolatutik baserrirrik naiz uririk ere. Euskal-tarrek azkar on-artzen ditu zibilizazioak berrieneko mekanika-surrerapide guziaz, baina era-bereaz, euskal-izantzari iñolaz ere uko egin gabe, au da, erlijio eta politikarekiko bere arau zar-zarre sberastasunak biotz barren-barrenean tinko gordetzen ditualarik. Nere ustez, dio, ezta Europa guzian Errí ori bañio moralidade gardengokorik. Euskalerritara (arimaz bezela arpegiz ruxen) sartzaide ontan Adán-en landarategi aldekorak emen duan landararik jatorretarikos degu. (1)"

(1) Ona-emen Ortega y Gassetek berak erderaz idatzia: "No hay tierra en España más cuidadosamente labrada ni más limpias aldeas ni ciudades mejor organizadas. El vasco acepta rápidamente los inventos mecánicos de la moderna civilización, pero a la vez conserva irreductiblemente en su pecho, el tesoro de viejísimas normas religiosas y políticas. Yo no creo que exista en Europa un pueblo de más escendrada moralidad. Rectilíneo de alma como de rostro, el vasco es una de las más nobles variantes que en Occidente ha dado la voluble planta de Adán" (Obras completas, pag. 336)

Euskaldunen birtute ederrok zeri dizkiogu, zor geien geienik? Galdera onen erantzuna' Ortega y Gassetek bera argitzen digu zerbait itz oieza: "el tesoro de viejísimas normas religiosas..." (au zion katoliko-erlijiotik urruntxo bizi izan zan filosofo orrek).

Erlijioa degu, bai, euskotar birtuteen zaintzaillerik bikaiena baña, ordea, erlijio orren beroren gordetzailleurik aundiema, gaure euskera degu.

Ontarako euskera ta euskaltasuna' irastontzi bikain-bikaiak d'Euskalerrriak. Euskotarrak aur egiten du: ikusi ta ausmartu jakintsuei ideia berriak, baña norberegaganatu ez guziz, euskal-gurasoek irakatzen ideia ederren argi tartetik irazi gabe.

Euskera gorde dituala, diokegi beraz, eusko-birtuteak eta batere erligio-fedea, iñun ez bezelako erlijio-fedea, bai. ?Ba-al da mundu guzian Euskalerrrien bañio katolikoago dan Errirrik? ?Aundiaren eta bizi-lagunez komparatuta, Katoliko-Elizari, Eliz-gizon eta emak geiago eman dionik? ;Zenbat Apaiz Euskalerrriak (1), zenbat Praille,

(1) Errigoiti, Bizkaiko Bae-Erri bat degu, 1.100 bizi-lagun inguru ditu. Aurten berean, ango eliza nagusian, iru erri-semek baitera eman dute meza berria, eta beste iruk, era-bersan egiteko asmo dute datorren urtean. Goragarrria ori, baña, jakina: Errigoiti, Gerrikako Arbolaren alboko erri euskaldun uts-utes degu.

zenbat Moja; eta zenbat Mixiolari, Iñaki eta Jabier doneen demboretik asi eta gaurdañio!

Au, guzi au, olaxe dalarik gez al du merezi Euskalerrriak, Kato-

liko-Elizak maiteen izatea? «Eliz-buruzagi goienetakoestatik asi eta umillenestaraginokoek begiratze kutunenez, Erri au, dan beze-lako goror nai izatea?

Baiña jzer gertatzem da?

III. ELIZ-GIZONAK ETA EUSKERA.

Badira, bai, Eliz-gizon batzuk, Praille, Apaiz eta abar, euskeratza euskaltasunaren alde, jatorki eta ardurari santuenez lan egiten dutenak. «Baiña gaiterantzekoek zer?» Eliz-gizon eta emakume geien-geienek zer? Batez-ere, oien agintari beeko ta goienetakoek zer?

Ikus dézagun.

Euskalduna guziz atxikia dá gurasorik guraso eldu zaizkion zer guzial: izkuniza, oitura, eta batez-ere *Erlijio Santuari...* An-or-emen erdaldunari erdera entzuteak' ezlio gutxituko euskal-meltasunik, ez orixe. Baiña erdaldunok eliza-agintari, maixpi edo olako baldin badire' orduan bai, orduan gerta liteke, euskal-maitasuna gutxiagotzen astea.

Au gertatu da, eta gertatzen, orrako serora eta moja erdaldu-nekin. Oitariko bospasei aizpa maitagarrik' idekitzen dute, gure erri batean, kolegio bat, eskola bat.

Gure aurrek, eskola ortan sartzen diralarik' guzia lilluragarri aurkitzen dute; eliz-andere bedinkatuok' soinuko bereizi ta errespetagarriz estaldurik, eta, batez-ere, paparrean gurutze eder bat zintzilikia dutelarik, au, beuren fede biziak kristautasuna agertzeko.

Moja oik' jekin, irakasle bikaiñak dira; lazenaren nekeak aspertzen eztitu, ezpaitira munduko diru urriz pagatuak, zeruko asetegarritzko baizik,

Baiña, orain díterkigu gauza eder guzi oien alde samingarria: moja oik erderazko dituze irakaste guziak; geiago ta txarrago: badute euskerazarentzat olako gaitzeste bat, euskera, kaltegarrizko gauza bailitzeari uste ongi sakondu bat; eta uste negargarri orren lurrun atsitusk' gure surren biotz xamurrek, azkar ditu txertatzen, kutsatzen, ziringatzen.

Gaitz orren ondorenak' edonun agiri zaizkigu. Or ikústen ditugu, Uri ta Bas-Erri euskaldun-euskaldunetan, aurra lenbizi euskeraz egin nai ezik, gero euskera axtuta.

Zer ortan (esan dezadan bide batez) nekatoak dira surreneneko; nerka-toak eta neskak, euskal kontrako sagar txar ori, lenbiziokoz eta jozanik aundienez jaten dutenak; gero, paradesuan Eva-k antzo' jan eragiten diente, gure Adan txiki eta aundieie ere... Neška oiek eta emakume orok ere, etzakile, gaixoak, sagar orren eragintzak, gure mutillak, zenbat on-bidezko ~~gutxiagotzen~~ ate ta leio itxi, eta galbidezko zabaldú, egiten dizkieten!

Aur oien gurasoak, batez ere Amak, maiz kéjatzen zaizkigu: "Guk etxean (esan oihale) alegiañak egiten ditugu, aurroak, euskeraz ikasi eta euskaldun jarrai dezaten, zerren-eta, ikústen baitugu, etsekebeez, oraingo gazteek, euskera galtzeaz, zenbat gauza on galdu, eta, ordeaz, zatar eta arrisku aundiako ikasi, egiten dituzten; baiña aliperrik ari gera: oik, eskola oik, batez-ere, moja-eskola oik!"

"Guri ere (gaiterantzen dute Ama gaixoak) gure maistrek irakasten ziguten erderak: ez, noski, oraingo nobela ta ebarrek sarri ekarri ci dituzten gaizkeri ta zentarkeri erdi estaldua atsegiztez milikatzeko aitako erderak, baiña bai, oraingo bizimoduak bearrezko egiten diguten aitakoak. Eta guzien gain, etzigutzen euskera galdu arazten, gutxiago, ara-ere, mespreziatzen".

6

Arrazoi eundia dute orrela kejatzen diran euskal-guraso maiteak. Izen ere, orrako moja-eskoal geienak' euskera itxusgarritzeko eta iltzoko sortuak dirudite. Au geiegikaria dala? Ez, zoritzarrez ere. Eta egi-egia dala erakusteko' bagenuke zer esanik asko. Ona emen ejenplu betzuk.

IV. EUSKERAIEN KONTRAKO GERTAERA TRISTEAK.

Euskaltzaindiak, guriok dakizunetx, jasan zuan, crain dala smar bat urte, aztu ezinéko atsekabs bat. Aita Villasante errezipitzea zitzaionen itzaldi ederreri Krutwig euskaltzain jakintsu eta langille lengilpeak zion erantzen. Ni enintzan lekuo, baiña Villasanteek bera kontatu zidan, andi andika, an gertatua. Andi-andika esan det; gero ere nik eztet irákurri, osorik, Krutwig lagun aren itzaldi ura; ala-ere, egoki derizkot, orduan A. Villasanteri esan nizkion itzatzuk errepetitzea. Lenbizi auxe: Krutwig-ek, garai artan, itzen batzuk gogorregitxoak jaurti baldin bazituan ere, eztela ori arritzek biotz mindua'k ori, edonoiz eta edonum egin oihala, eta gogo onez paraten zaio (beter, nere itzaldi otoñen esan netzaken itzgarretzen bat edo pesteentzat ere, parkamen perorixe). ~~Eraizez el zuan Krutwig eta ez al degu guzick, arek erabil zuan gai artan, minberatzeko motiburrik?~~

Aita Villasanteri berari kontatu nizkion, orduantxe, bururatu zi-tzaizkidan bizpaitu ejenplu, txit irakasgarriak. Villasanteri nungo txa nortzuekiko guzien izenek ageri nizkion, baiña eztitut orain bireresango, ihori min era kaita egitez, ezpaitugu, euskaltzaiak, ezeirapezterik. Ona emen ejenpluak.

1º. Bizkaiko uri ospetsu bat zai (Arizpeitiko deituko diogu). Uri ortan, bade kolegio bat, alegia, loja-eskoala eder bat: Udalak (Uri-etxeak) diruz lagunduera eraikia zuen-ere.

Moja oiek, eskoala ortara dijoazien aur ugariai ederki ta guzitar: irakasten diente, baiña ibetakoak euskerak, bauesten, baztertzen, etolaze, guziz aztuarazten ere bai.

Ori ikusirik Udalek (Karlista, monarkiku, abertzale, errepublikanu... guzick ac-batez) moja aiel, beñola, euskeraz ere zertxobai irakasteko eskatu zien, ortarako, bear zitezkean liburuak, Udalak berak aukeratuko zizkrietela-ta.

¿Erantzuna zer? Gugo gutxi, aitzaki asko, luzeplidea... azkenean ezer ez.

2n. Au ere Arizpeitiko Ospitale aundi ta eder batean gertatua da. Emen ere! Moja bedeinkatuak gaixo zain. Ospitaldu guziak' (gaixo, atso-agura, aur... guzi-guziak') euskaldun. Baiña mojen izkuntza beti erderak, bai otoitzetan, bai beste edozteran.

3n. Beda Euskalerriam "Batzar-Etxe" eder bat. Angoxe Saloi-nagusi batzen ziran, gure asabek, Errria gobernatzeko Legegizan.

Saloi orrek, bera, beroren kapillatxoak, Kotiña Batez ostendurik; kottiña ori jaso' eta Saloi ori kapilla aundi biurtzen da.

Batzar-Etxe orren jaiba zan Diputaziuak' igande guzietan Meza-ix bste emateko, Apaiz or bat bialtzear zuan, bere kontura, eta uri arta Erretore jaunek meza bitartean itzaldi bet egiten zuan: baiña erdraz. Ordea, meza ortara jende ci ziran geien geienak' euskaldunak zitzaion, eta asko erdererik etzekiteak. Diputaziuak, ori ikusirik, etotik arek, euskal-gauzantza eskatzen zuan maitasunagaitsik. Errerore urari, au eskatu zion: baldin neza arten itzaldigizian jarraitu nai basuan jarrai zezakeala, baiña, mezedezez, euskeraz egiteko. Erreroreak, obetu ez eta berriz ere erderaz. Diputaziuak, azkenean, galerazi egin zion, indarrez, mezu-garaian, kapilla artara sartzen; eta ola bukatu zan estra-baida triste ura.

V. ZERGAIKIK EUSKERAREN KONTRAKO ZEROK?

Euskal-maitatzaileentzat samingerri dira olako gertaerak. Ez-kemmuk sinistu bear, ordea, aipatu ditudan Apaiz eta Mojak' euskerak

5

ren benetako etsai litzkeanik. Benetako eta samingarriago dan gauza' beste zer au degu: Mojetan, baita Praille ta Apaiz askotan ere, eta geiago guzi oñin goi-nagusi errespetagarrietan bida si-niste illun bezelako zer bat, zeliek agintzen baitie, euskera ez-tutela erabili bear; ezin bestez baizik; iñcla ere ez eskola ta ikas-guetan, komentu eta seminariorietan, aundizkiren bat-edo lekuko da-tekean tokietan... eta sbar.

"Siniste illun" ori dutenei' bi gauzok agertu bear die Euskal-tzaindiak;

1º. Gaur egunサン orreala bazterturikako mintzairek' ez düketela bizi-zaterik.

Orain dela 50-enbat urte-edo' euskotar erri ta uri geienetan, euskera genuan mintzai bakarra; erdera ganorazkorik' ikot etzekian, Eliz-gizon, Mediku, Eskribau... ta beste andizki banakaren batzuek izan ezik.

Garai artan' erderaren aldeko zer ori' ain kaltegarri etzatekean: euskaldunak bi-izkeldun egin nai izatea baizik etzirydian. Ori etzatekeala ain gaizki diot: Europa eñdi-erdian berean ditugu, Erri, ja-kintza guzietan, txit surreratuak diralarik' erri mintzaira bi edo geiago goi-eskoletera jasotzen dituteneak: Suisa, Belgika, Luxem-burgo. Bañua gu, gutérteko bi-izkeldunta ori iritxiz gero' galtze-biderik txarrerena eraman nai gaitutea. Egiaz, baldin euskera, ikas-guetatik eta abar urrundu, eta erdera bakarrik badarabilgu' gure mintzai ederra, errremedio gabe, ilitzeko kondentua degu.

Orra bade: lenbizi euskaldun-soil giztan; gero euskaldun-erdaldun. Geroago erdaldun-soil guzioak? Ontare gijoazkeala, eza iritzi utsa, egi-egia baizik. euskal-uri askotan gertatzen ari zeigun egi agiri te samingarria.

2n. Euskera galtze orrek dakarzkian ondoren kaltegarriak, batez ere Erlizioarentzat.

Gorago bir-esan ditut, guraso euskaldun askoren onako itz samiak: "Ikusten baitugu atsekabez, diote, craingo gazte asko, euskera galtze zenbat gauza on eta eder galtzera eta itxusi ta zantar bideetara ga-ramazkian".

Gauza on eta ederrrok zertzuk ditugu? Ortega y Gassetek apuntatzen zigun birtute oien sustrai sakon bat: "bizitza surrerapideak azkar ikasi ta artu, bañua guraso zaarren irekatsiek aztu ta galdu gabe".

"Au, noile iritxi dute euskaldunek? Nola iritxi du Euskalerriak, beste Aberri edo Erresuma geienek ezin izan dutelarik? Dudatzeke, euskerek eta onek babesten dion erlijioa sendo eta sakonak.

Euskera ta erlijioa ditugu, bai, euskotar birtuteen eusle nagusia!

Euskera ta Erlizioa, beste aldez, elkarren eusle dira. Euskera galduaz Erlizioa berantz, beingoz eta iduriz espaldin bada ere; berantz, bai, makalitzen, oztutzen; euskotar erlijioaren barren-berotasuna, zaintutasuna, zarata gutxiko bañua benetako er-liziotasuna aultzen, erbailitzen. Eta eraberrian, berantz euskotarren birtute ederrok ere, mundu guziak oizuzten dituan euskal-birtute ederrok ere.

Euskera ta Erlizioaren alkartasun ori' aintzinatik irekasten di-gute euskal-esaun jakintsuek: "Euskaldun' fededum" "Euskerak atze-rantz pausu bat' erlijiuak bi" "Jaungoikoak nai du euskera bizi dedi (Kardaberaz Aitak) "Gure ezaguarriestan (dio Aita Lespiur karmeldar ideziez argiek) bi atalik ezagunenak euskera ta erlijioa dira. Bata iltzean bestea dijoakio lotuta... Ez dezagun alitzu euskera ilda... erlijioa galduko dugula..."

Ba-dira Euskeraren eta Erlizioaren elkartasun ori autortu nai ez-tuteneak, alegia, au esaten dutenek: "Euskera eta euskaltasun gabe ei-gez al dira kristau on eta birtutetsuek? --Bai orixe, diot nik; bañua itzaldi ontzi' enaiz legun hakoitzten erlijio ta birtuteez ari,

Erri osoñez baizik, elegia, Euskalerri osoñez erlijio ta birtuteez. Eta auxe dà gogoc artzeko, auxe dute goragarri Ortega y Gasetek ere, orixe baita gaitz, orixe miresgarri.

VII. EUSKERA, ERLIJIUA ETA MAKINTZA IKASKETAK.

Lengo idatz-atalean, euskaltasunaren ontasunak egiztatzeko, Ortega y Gasetek gaztelarra lekukotz det maiatzxo. Jakintsu orren aurrez aurre Unamuno euskotarra presenta ligukete norbaitzuek. Gakiozan, beraz, Unamuno orren ere.

Egia esan, Unamunok, msite suan Euskalerria, eta euskerak ere bai noski (bere 64 euskal-abizenak, pozik ciustzten situan), bañka mailatze biok bere modura. Erlijiusa ere, ola-ola, dokma gabekoa; ots fedezko egi gabeko erlijiusa zuan berekiko, Auguste-Comte-ren "religion positive" edo olako erlijiusa.

Guzi ori ola zalañik' euskal-jendeek muxin mingoitz egiten zioten Unamuno jakintsuari. Gernika, gure bizitzazuri maitegarri onetako bizi-lagunek ere' muxin; su ere' mingoitzgarri, gernikarra baitzuan, Unamunok, maite maite zuan emazte kumut eta txitx eliztiarra.

Muxin guzi oien mingoitzasunet eranginda edo agertu bear Unamunok, noizpenean, euskaltasunaren kontrako iritziren batzuk. Dans-dala jaurti zituan, bein, iloboko teatri aundi batean, zer-esan aundia eman zuten itz batzuk, au bezelakoak: "Europatia, kultura Euskalerriaren edatzeko" euskerak erregozpen aunia degula. Itzaldi ura bukatzean, aundik betzuek txalotu etzitela ikusirik, damutu omen zitzaior Unamunori esanak esatea.

Itz zekarrak, izan ere Unamonoren itzok, zerren-eta, euskerak, ezpaitie jucioz kalterik egin euskaldmai, bakoitzak berre zereginetan jatorki ekin' eta gure ~~mentore~~ Erri, kulturrik ederreneko Erri formatzeko; ez-ete bear duanek, bear besteko erderak ikasi' eta jakintza arloen, baliozko surreraper guziaz Euskalerriratzko. Guziaz kultura au, ez-ote oso, beste kultura merkezta szal utsezko asko. Bañio? Kultura merkezak diot, alegia, guzick jakintza gerala uste-izani! guziaz baliozko lanetarako guaza-tz izatera garamazklan kultura. "Oixe ez-ote du esan nai Ortega y Gasetek gorago kopiatu ditu dan itz eder alezaz..."

Unamunok, euskotarizanik' euskal-kulutra, gutxi-esten du; Ortega y Gaset-ek ordea, gaztelarizanik' kultura ori' bikaiñen eta gorengotzat esten du jakintzu biok, Euskalerria jugzatzen, *«nola irren elkar-contrako»* alta bada, biok ziran arrazoil-uts zale (ots, "fracionalistak"); bañia, ori ez izan aski, giza-iritzia berdintzeako. Unamuno-ri, ikusi degunez bere biotz mingoiztuak, illuntzen arrazoia; Ortega y Gaset-ek, arrotz genusularik, ots-ots begiratz zituan gure gauzak, eta Unamuno-z oso bestera jugatzen. Ola beraz: Unamunok, Europatiar kultura jartzten digu gurearen gain-gaike-tiko; Ortega y Gaset-ek ez, onek diñezez euskotar kultura "uzendura te ondratuzasuna", baliozkoago dira, eta gañiera (*dio*), birtute oik galdu gabe azkar eta ederkil oreganatzen dituztela, euskotarrek probetxuzko diran mudi du-aurrerapidez guziaz; "mekanika-aurrerapideak" di Ortega y Gaset-ek; *«zer ote-da, benetan, oixe bañio geiagoko, Unamunok dion "civilizazion europea" ori ere? Dokma gabeko erlijiusa ta ebar noski»*.

Itz laburrez: Unamunok, Euskalerriaren surrerapideetarako kaltzegarri du euskerak, Ortega y Gaset-ek ez. Onen diñezez euskotarrek Europako kulturariak ederren eta balioztsuena dute; eta ortara irixteko eztieta, beuren izantza-lege ta aigerpena (erlijio, politika..) uko egin, kontrara, beuren biotz barren-barrenean gordetzen eta indarrik zekenez eusten dieite.

Guzi-guzi orren endorenak: Euskalerriak eztu kanpotarkeri geiegi; izan bear. Esarea zaizkak dirauskus "On ezagutzeko" bañio, "txar ezagutua" oso dégula. Zenbatez osoa ez-ote, on ezagutua?

Idatzatal au bulatzeko. Euskalerriak "on ezagutu ori" galteeza *«Zenbatera itzoko penagarri luke?»* Euskalerriak ez-eze mundu guziaz ere, gaurko birtute-galtze izugafriak ikusirik; *«Eta, guziz*

beraziki, ez ote pensagarri Irristau-Elizak, Pizene bealdeko gure txoko ontan aurkitzen duan perlarik ederrén ori galtzeaz?

VII. EUSKERA GALTZEAK? EUSKOTARREN BIRTUTEAI LE-KARZKIEKEAN KALTEIK.

Gorago (2n. idatz-atalean eta) ere, zerbaite esan dizuet gai onezaz. Ekin dezaigur emen ere, iportantzikirik audienekeo baiantu.

Euskera ta eusko-birtuteak elka loturikako ondasunak dirala genekusuan an, eta bate galtzeak bista ere galtzeko arriskuan jar-tzen duala.

¿Arriskuan bakarrik? Gaur-daneko ere, ez al-dira agiri, uri asko ta askotan, galtze biok elkarreki darraikdetea?

Gure gurasoek, beuren ejenplu ta irekatsies formaturiko gizaldiak, eta orain berritzen ari zeiguak, etxetxe konparaziorik: lendikoa euskalduna, benetako kristautierra eta birtutetsua genuen; orain formatzen ari danak ordea, jeman al-dezake olako fratu bikaiñik? Mola era ez, baldin oraingo ibildura jarrai badeza. Ni bizi naizen uria bera? Bizkai biotz-bioizean degu, eta suzi ori juzgatzeko ejenplurik sutatuenetakorik dirudikegu. Ale ba! uri ontan, kristau asko-asko (Erretore jauna Kulpitik ari bai!) Xeru dira, arriturik dira; Euskalherrian inciz ~~were~~ enezun ere egia, estiran gaurko gajzkeri ta lo-tsagabekieriez saminki tejatzen dira. Eta gauza berau entzuten diegu Bizkaiko beste uri its erri askotako kristau on eta jatorrak ere.

Eta ezta esan bearrik: euskera ere, uri ta erri oietan neurri bers-berean dijox gair-bera.

¿Erlijio ta euskeraren elkartizmori jarritzeko al da?

Gai onezaz zer-ikusi aundia duen liburu baliotsu bat' badu, orain-tsu idatzia, Frantzisko jesuita jauntsu batel: Aita Desquerryat-ek; liburu orrek, gazteleraez, "La crisis religiosa de hoy" du izena. Gaur, mundu guzian, erlijius galtzen dijala dio, eta galtze orren zegaitikoak, edimen argi ta zorrotzez azaltzen ditu. Zegaitiko bat sustrai-galtzea itzaz adi-arazten du. Egia, gizonok, erbesteratzeaz, edo-ea, geure Errrien diraugulerek ere, berroko izate modutik urrinduaz Errri erreri atxikitzen gincuzten sustrai-sakonak eten, ausi ta galdu egiten ditugu; atxikidura oik' lokarri, oik' errri-oitura ta ekanduak, itzerrifioak, erri-izkuntza bera seniument eta oik galduaz erlijiuera otzitu, urrindu, eta galtze-bidean jartzen degu.

Aita Desquerryat-ek, guaza oik mundu-erri guzietan gertatzen dira dirausku. Baiña Euskalerrrian (diot nik) bereiziki izan bear, ondo-ren txarragoko, gaiztagoko. ¿Zergaitik au? Onegaitik; Ertz txiki bat, agin txiki bat ateratzeko ahoa zauti ta min gäitxo egiten digu; ordea, sustrai asko ta sakonak dituan matrilla-agin aundia ateratzreak erasoten ditzigun oñize, oieteko zauri eta beste ao-gaitzak askoz sundiago dira.

Aor beda, eta euslaldunen mintzaira, oitura, ekandu ta izate-modu guztien sustraiak, Europa-ko Errri ororenak baiño aintzinagoko egér-tzen dira; ori guaza, akiña degu; Europa-ko Jakintsu eta Jakintzak or ari zisikigu Euskalerritarrei orixe gogora-arazten, predikatzen eta goratzen.

Eta orain arte ain ondoren eder, eta ongarriak eman ditzigun izan-tza ori galtze-bidean eraztea, eta batez ere, izantza orrek aitigarri-rik bikaiñen duan eustera bera, sustraitik, érrro-errrotik kanpora ateratzea, jez al degu be idur izateko Beldur izateko, bai. Aita Desquerryat-ek, erlijio galtzeaz dioma, esaldegarriki gerta ez ote ditzaike-gun, zerren-eta galtze orrek, Euskal-izentza zaar eta sustraitsuagan, mukurtzerik eta ondemendirienek dakarze, alegia, arako matrilla ažiñik sustraitsuana ateratzreak, sio gaixoan egin oih dituanen pareko.

Ggoeta guzi oik eta beuron ondoñea gorago esan dedan zer onen:

Jarico degu, alegia, galtze oik etortza' Katoliko-Elizak díkeala penagarrien. Penagarrizk-penagarrien, bai, Elizarentzako euskal-izantza ori galtzea; penagarri, nion an, Pirene bealdeko txoko ontan Elizak surkitzen duan perixerak ederren ori, bertan bera utzi eta galtzea. „Nola, beraz, Elizako Buruzagi ta serbitzari guzi guzick, EUSKERA, amodia bizi ta eragikorrez babesten ez? „Nola ez, baldin parla ori gordetzen duen maskorrak gogorena, koškolkiz, saillena euskeria bera ditelerak?

VIII. Eliz-buruzagialai errengu bat.

Orra or euskeraren bizitzak, gaur, agirien eta minbereen agertzen duan erazoriknagusiena, beraz, Euskaltzaindiak ardurarik aundienaz gogoratu ta aushartu bérar Lukéana. Eliz, bai, euskal bizitzak, Beste zaindu bearreko eragozpenik asko ere, baiña Elizarekiko ori, guzien gainetikoa eta ~~ezagutza~~ lelazkoena; ori erremedi ezpageneza, alperrikoko ditugu beste skin-hide guztiak. Gaitz-iturri ori beár litzateke, beraz, sendata lenbizi, eta sustraiki, sakonki; ortan "zapi-epelzezo" erremediak eztira aski, ezukete askorik balio.

Euskaltzaindiak, lan oxtan asteko' beditu, nik uste, euskaltzain autagarriak: ciek bear diote presentatu Eliz-agintari goieneko ta beieneko orori, errepetuz, baiña artamendurik aundienaz, idazki otxan agertzen duan guzta.

Euskaltzain autatuko, agertzapen orrezaz, bear lituzkete Eliz-agintarien zentzu argi eta biotza ukitu; sinistarazi, badala, Euskalerrriko gertaera oisten, katoliko-Eliza osoak, arduraki begiratu ta eskuratu bear Lukéan auzi bat.

Eliz-agintariek, ideia ortara iritxiko balira' artuko lituzkete, gogoz eta biziki, urengó jartzen ditudan (edo oik baiño aundiagoko) erabaki batzu.

Erabaki-gai oik, Euskaltzaindiak ezin presentatu litzaieke Eliz-agintari ~~egin~~ bearreko lituzketen bezela: au ezkenuke errespetuz itz egite. Ordea, esan genizaike, itzik samurrenez baiña bizienez ere bai, eskatzen dieguna¹ suskeraren osasunak bear-bearreko duala. Erragu au egitea² eskubidezko ez-ezik, obligaziorik aundieneko ere ba-dego euskaltzainok.

Ona beda, menen, gure erabaki gašok.

1º. Eliz-agintari guzi oiek, bear dituzte ezagutu, ezagutu-arazi eta goraltxatu, edonun, Euskalerrriaren kristau birtuteak.

2º. Ezagutarazi, eraberean, birtute oik irauteko ta indartzeko, euskerak duan balio gorengoa.

3º. Euskalerrriko Eliz-gizon guziek³ batez ere euskal-prediku ta konfesio lanetan ari-izatekoek⁴ bear dute euskera ongi ta errez mintzatzen alegindu, ortarako, elkarren artean euskeraz itz egifiaz, eta, aukerako eskoletan (Seminario, komentu eta abarretan)⁵ ikaste luze ta sakonak egifiaz.

4º. Apaiz, praille eta mojak (⁶otoi, mojak, Jaungoikoarren!) gobernatzen edo-ta zainizen dituzter eskola, gaixo-estxe eta abarretan⁷ irakatsi orori lembizi euskeria biotzez maitzaten, eta gero⁸ (al-dutene neurriam)⁹ itz egiten, irakurtzen, idazten eta abar.

Gauza guzi oik ongi egiteko eta frutu-emaille izan ditezen, ¹⁰ez al liteke aurkitu benetako biderik! Bai, egiaz eta biotzez mai izan ezkerroa ortarako, bear litzateke (zergatik ez?) Eliz-gizonen batza, bilkura edo olatxo zer aundi bat antolatu; eta alintze, Apaiz, Praille, Moja eta abar, beuren gorengo Agintariak buru dituztelá¹¹, aztertu eta eztabaidatuko lituzkete, gutxienez, nik jarritako lau ¹²erabaki gai ¹³ebazten, oietan agertu deden guzia. Amaikatxo Katolikoko Kongressu apaillatzen dixa, an-or-smen, euskereren alderako ekintza ¹⁴

onek bezin fruitu balotsu ta bearrekorik ematen, gaitz duketen! IX. AZKEN-ITZAK.

Orra, nik, itzaldi oñtan esateko asmo nuan guzia azalduta. Eta, azalize ori bukatzean gauza txit pozzarri ta maitagarri bat datorkit burura. Gauza ori ezta berria, euskal-maitatzaille orok dekite, baiña emen aitatu gabe ezin utzi; ona emen: Naparroa-lege-zar Diputazioak ("Diputacion Foral" delakoak)8 euskeraren alde, dirutza eder bat eragitzes erabaki du; orrenbesteko dirutzarik (euskeraren gaixa!) ez omen du itxoiz ikot eman ortarako, alegia, euskeraren bizitza zaindu za indartzeko asmo uts-uts. orreraz. Euskaltzaindiak, eta euskaldun guzick, bear degu esker-tu, biotz-bioitzez, Napar Diputaziuaren erabaki aberkoi ori. Aintzu, biotz-bioitzez, Napar Diputaziuaren erabaki "Euskalerriaren Muina" ("Naz-errorum"), eta Naparroari berorrak "Euskalerriaren Muina" ("Me-dula de Euskalerria", su orainitsu M.A. Astiz idazle azkarra). Ekin bezaiote, naperrak, bide ortetik, euskeraren berriro "Lingua Navarrorum" dutekean arte; ola ber-irabaziko du sekula galdu bear etzukean titulu ederra: Euskalerriaren anai-nagusia, ba-teratzailla ta buruzagi titulua.

ALTUBE-K (Gernika-n 1969-gn. neguan).